

José Antonio Azpiazuk Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen 50 urteak ditu hizpide

2010/11/12

“Mirando al futuro desde la historia”. Horixe bera da Jose Antonio Azpiazu historialariak idatzi duen liburuaren izenburua, eta, bertan, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen 50 urteko historiako nondik norakoak berrikusi nahi izan ditu. Idazle eta ikertzaileak, gainera, ondo baino hobeto ezagutzen du fakultatea, hamabi urtez bertako irakaslea izan zen-eta. Azpiazu Aro Modernoko euskal herritarren bizimoduetan espezializatu da, hamabitik gora liburuko bibliografiari esker. Aurton, Mondragon Unibertsitateko fakultateak bere urteurrena ospatu duenez, jarduera zein ekintza oroigarrien programa antolatu da, eta mugarri adierazgarriak ere egon dira, besteak beste, campus berria ireki berri delako Oñatin. Ospakizunari amaiera emateko, azaroaren 18an ekitaldi soziala egingo da Kursaal, eta, bertan, autoreak Mondragon Unibertsitatearentzat idatzi duen liburua banatuko zaie bertaratutakoei.



Azpiazuren liburuan, garai hartan eta urte honetara arte ETEO izena zeukan fakultatearen hastapenak berrikusten dira. Hain zuzen ere, 60ko hamarkada zailean sortu zen, Arizmendiarieta apaiz ameslariaren eskutik, eta, gaur egun, I+G-dun fakultatearen etorkizuneko proiektua sortzen ari da Oñatiko egoitza berrian, MIK ikerketa-zentroaren eskutik. Era berean, Bidasoako Campusa ere handiagotuko da. Bost hamarkada horien joan-etorrian, orain paperean, oroimenerako geratzen dira lehen urteak: eskolaren ibiltaritza, osteko hazkuntza eta San Lorentzoko lurretan sendotutako heldutasuna, berrikuntzaren ikuspegitik etorkizunari begiratzeko. Horrez gain, hainbat eta hainbat pasadizo eta lankidetzak ere agertzen dira liburuan, fakultatearen etorkizunaren inguruko ilusioaren eta nostalgiaren artean. Era berean, fakultatearekin lotura handia izan dutenen ekarpenak ere azaltzen dira bertan: ETEOko zuzendaria eta fakultateko irakaslea izandako Mondragon Unibertsitateko errektore ohia, Javier Retegui; ETEO sustatu zuen kultura-zentroko presidentea, Javier Arrazola; ETEOko lehen zuzendaria, Benito Ijorra, eta ostekoren bat edo beste, José Antonio Mendicute edo José Luis Abaunz, esaterako; edo zenbait belaunalditako ikasle batzuk. Izan ere, urteotan, 20.000 ikaslek ikasi dute Enpresagintzako ikasgeletan, eta, gaur egun, zuzendariak, enpresariak eta sustatzaileak dira, batez ere. Liburuak epilogoa, gainera, gaur egungo dekanok, Lander Belokik, eta fakultateko presidentek, José Antonio Ugartek, idatzi dute. Liburuaren amaieran, ilusio-hitzak eskaintzen dituzte fakultatearen etorkizunaren inguruan eta, batez ere, konprometitutako, inplikaturako eta prestatutako pertsonen inguruan, unibertsitatean ikasitakoa enpresa-arloko premia eta errealitate berrietara zabaltzen dute-eta.